

Zeharkako gaitasunak unibertsitate-irakaskuntzan eginkizuna aztertzeko jardunaldia

2007/02/16

Mondragon Unibertsitateak jardunaldi bat antolatu zuen, **Otalorako jauregian**, zeharkako gaitasunak unibertsitate-irakaskuntzan duten eginkizuna eta garrantzia aztertzeko. Jardunaldia unibertsitateko irakasleei zuzendua zegoen, eta arlo horretan prestatzea, sentikortzea eta esperientziak trukatzeko zuen helburu. Horrez gain, zeharkako gaitasunak lan-munduan duten garrantzia aztertzeko ere balio izan zuen saioak, eta lan-merkatuak esparru horretan zer premia dituen jakiteko. Izan ere, hainbat aldaketa gertatzen ari dira egungo gizartean, eta horretan, aldaketetara egokitzeko eta ezagutza teorikoez bestelako balio eta trebetasunak bereganatzeko gai diren profesionalak eskatzen dira. Jardunaldia otsailak 9an goizeko 9:00etan hasi eta 18:00etan amaituko zen.



Izan ere, Europako Esparrura egokitu ahal izateko, zeharkako gaitasunak sartu beharko dira unibertsitate-irakaskuntzan, eta horri dagokionez, **Mondragon Unibertsitateak** ia zazpi urte daramatza lanean, **Mendeberri proiektuaren** bidez. Talde-lana, erabakiak hartzea, komunikazioa, lidergoa, ikuspegi globala, arazoaren ebazpena eta ikasten ikastea dira unibertsitate-mailan landu behar diren zazpi gaitasunak. Mondragon Unibertsitateak bere hezkuntza-proiektuan sartu ditu gaitasunok. Izan ere, Mendeberri proiektua zuzenki lotuta dago Europako Esparrura egokitzeko erronkarekin, gizartearen benetako beharretara egokitu eta haiei erantzuten dien prestakuntzaren bidez, besteak beste.

Hezkuntza-proiektu horri esker, beste urrats bat eman du Unibertsitateak, hezkuntza-*berringeriaritzako* proiektu baten bidez ezagutza, gaitasunak eta balioak garatzeko egindako apustu irmoan. Proiektu horretan, ikasketa ez da ezagutza zientifiko-teknikoetan soilik oinarritzen; izan ere, eredu hirueledun baten bidez garatzen da, eta horretan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak oso garrantzitsuak dira. Azken batean, eredu horren helburua ikasleek trebetasunak eta gaitasunak hartzea da, ikasketa ezagutza zientifiko-teknikoetan soilik oinarritu gabe.

Mendeberri proiektua

Mendeberri proiektuaren bidez, enpresa eta erakundeen premiei eta haietan gertatzen ari diren aldaketei erantzuten die **Mondragon Unibertsitateak**; izan ere, hezkuntza-kontzeptua goitik behera aldatzea eragiten dute aldaketa horiek. Proiektuaren helburua pertsonen beharrezko prestakuntza ematea da, haien gaitasun pertsonal, sozial eta profesionala egokia izan dadin lan-munduko erronka berriei aurre egiteko; alegia, prestakuntza beren gain hartzeko, taldean lan egiteko, proiektuen liderrak izateko, erabakiak hartzeko, negoziatzeko eta komunikatzeko gai izateko.

Azken batean, irakaskuntza-eredu klasikotik –hots, ezagutzen transmisioan eta irakasleen protagonismoan oinarritutako eredutik– ikasleen autonomia eta beste gaitasun batzuen garapena sustatzen dituen eredura igarotzea eskatzen du horrek. Hezkuntza-proiektu horrek ikaslearen parte-hartzea azpimarratu eta elkarlanean aritzea eta erantzukizunak hartzea sustatzen du; azken batean, ardatz gisa komunikazioa eta helburutzat ikasleak eragile proaktiboak izatea duen eredu da.